



Euskadiko Lehendakaria
El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abendua

Munduko euskaldunok,

2022. urtean zehar Covid-19aren pandemia atzean utzi eta gure egunerokotasunera eta komunitate-bizitzara itzultzen joan gara apurka-apurka. Nire lehenengo hitzak hildakoak eta haien senitartekoak gogoan hartu eta haien elkartasuna adierazteko dira. Guztiak ditugu gogoan eta Gasteizen Semperviren Parkea dugu horretarako, beraien oroitzapena gordetzeko bilgunea.

Aurtengo udan 500 urte bete dira Juan Sebastian Elkano buru zela ekintza gogoangarri bat egin zenetik: haren itsasontziak lehen bira eman zion planetari eta denboraren poderioz munduko migrazio handiak izan direnak hasi zituen. Elkanori eta zuen arbasoei omenaldia egiteko, irailaren 8an Euskal Diasporaren Nazioarteko Egunaren bosgarren edizioa egin zen Donibane Garazi hirian, Nafarroa Beherean. Urtero bezala, 2018az geroztik, kanpoko eta Pirinioetako alde bietako euskaldunak batu zituen ekitaldi instituzional horrek.

Aurten erabateko jarduna berreskuratu dugu poliki-poliki. Pandemiak bi urtez galarazi ondoren, abenduan egin da berriro Gaztemundu programa eta XXI. mendeko Euskadiren ikuspegia eskaini du; Argentina, Txile, Kolonbia, Estatu Batuak eta Uruguaiako euskal etxeetako 20 gaztek parte hartu dute bertan. *Dantza Munduan* onlineko programaren bigarren edizioa antolatu dugu, euskal dantza tradizionalak ikasteko eta hobetzeko gune birtual bat, baita "Berdintasuna kalitate-elementu gisa euskal etxeen kudeaketan" izeneko bigarren online ikastaroa ere.

Gainera, urrats garrantzitsua eman dugu Euskadiren kanpoko seigarren ordezkari-tza Parisen irekitzean. Geroari begira proiektio handia izango duen mugarria izan da. Frantziako ordezkari-tza horrek kanpoan dugun posizionamendua hobetuko du eta euskal etxeen parte-hartzea dinamizatzen lagunduko du. Ordezkari-tza antolatu zen lehen ekitaldi publikoa Tourraren Gran Départ aurkezteko ekitaldia izan zen: Euskaditik abiatuko da Tourra 2023ko uztailaren 1,2 eta 3an. Aukera paregabera izango da gure herria munduan ezagutarazteko.

Aurten, halaber, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Lege berria bultzatu da behin betiko. Lege horrek Kanpoan diren Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako egungo Legea ordezkatu du, 1994tik indarrean dagoena. Lege berriaren xedea da kanpoko euskal presentzia egituratzea hurrengo bi hamarkadetan, eta horretarako bateratu egingo du euskal etxeen, kanpoan bizi diren euskaldunen, Internet bidez harremanak dituzten pertsonen eta Euskaditik kanpo jarduten duten beste euskal eragile batzuen bidez antolatutako presentzia hori.

"Han Hemen" euskal sare berria ere abiarazi dugu. Elkargune birtuala izango da hori munduan bizi diren euskaldun guztientzat edo euskaldunekiko kidetasuna dutenentzat. Gure asmoa da hainbat programaren bidez euskal etxeen jardura bultzatzen jarraitzea eta diaspora ezagutarazteko hainbat ekimen sustatzea, hala nola Euskal Diasporaren Ikasketen Graduondokoa, zeinaren bigarren edizioa dagoeneko egiten ari baita, edo Euskal Diasporaren Artxibo sortu berria.

Pandemiaren unerik txarrenak gainditzeak itzaropena piztu digu berriro, eta gure herriarentzat elkarrekin balioa sortzen jarraitzeko borondatea partekatzea animatu gaitu. Hala egin dugu beti, eta are gehiago orain, zientzia- eta teknologia-binomioak gure esku jarri dituen tresna berriekin. Gabonak direla-eta jo nahi dut zuengana eta Euskadiren lehendakaria naizen aldetik besarkada estu bat helarazi eta onena opa nahi dizuet laster hasiko den urte berrirako.

Gabon zoriotsuak igaro ditzazuela eta Urte berri on!

Iñigo Urkullu Renteria